

Euskaraldia

Aurreko astean esan genizuen moduan, Zurriola Ikastolak entitate moduan parte hartuko du aurtengo Euskaraldian. Horretarako, ARIGUNE desberdinak izendatu ditugu Ikastolan. Ariguneak EUSKARAZ ARITZEKO GUNEAK dira, eta, egunero-egunero egiten dugun moduan, konpromiso irmoa hartzen dugu gune horietan Euskaraz aritzeko. Euskaraldia hasi bitartean, Ikastolako Ariguneak aurkeztuko dizkizuegu Atariaren bidez. Gaur, HHko irakasle taldearen eta Hurrako Idazkaritzaren txanda da!



Familiak nerabeekin Covid19a lantzeko aholkuak

Pandemia dela eta nerabeen eta familien arteko bizikidetzan sortu daitezkeen arazoei aurre egiteko, Ikastolen Elkarteak eta Gipuzkoako Psikologia Elkargoko kideek txosten bat sortu dute. Bertan, besteak beste, informazioaren, emozioen eta arauen kudeaketari buruzko aholkuak aurkituko dituzue. [Zirkularra.](#)



HH4koak Zubiaurren

Astelehenean eta asteazkenean, 4 urtekoak goiz-pasa joan ginen Zubiaurre parkera. Parkean jolasean ibili ginen, baita gelarako hostoak biltzen ere!!! Bildu aurretik ondo-ondo aztertu genituen hostoak luparekin, Koronabirusik ez zeukatela ziurtatzeko, eta horrela, ikastola ez kutsatzeko. Primeran pasa genuen, ea noiz errepikatzen dugun plana!



Tinko Zinema euskaraz

Aste honetan, 4 eta 5 urtekoek Tinko Zinemaz gozatzeko aukera eduki dugu: "Pirata Arratoia" filma ikusi dugu, eta izugarri gustatu zaigu! Asteburuan ere zuen familioekin filmaz gozatzeko aukera edukiko duzue; lotura eta pasahitza zuen (gurasoen) helbide elektronikoetan jasoko dituzue. Gora Arratoi Pirata!!!



LH2koak Lore-Baratzetan

Asteazken goizean, LH2A taldekoak (Basajaun gela) Uliako Lore Baratzetara joan ginen goiz pasa. Eguraldi zoragarria izan genuen eta primeran ibili ginen. Maskara hamaiketako jateko bakarrik kendu genuen; zaborrak bertan utzi beharrean, sailkatu eta dagokion edukiontzietara bota genituen. Atxikita bidaltzen dizkizut taldeko argazki pare bat.



LH5ekoak Ulian

LH5eko irakasle eta ikasleok primeran pasa genuen Uliara egindako irteeran. Inguruneako proiektua dela eta, hostoak bilduz joan ginen bidean, zuhaitzak ezagutzeko eta inguruneaz gozatzeko!!! Goikaldera iristean, bazkari bikaina egin eta jolasean aritu ginen! Hori bai, beharrezko neurriak kontuan izanda... Musukoa beti soinean!!!



Gau beltza badator

Datorren asterako proposamen batekin gatzokizue. Urriaren 31aren inguruan ospatzen da Gau Beltza Euskal Herrian. Hori dela eta, ohitura zaharrak berreskuratu nahian, jai berrasmatzeko proposamena lantzen ari dira herriz herri. Webgune honetan duzue informazioa, ekintza proposamenak eta hainbat baliabide beste hainbeste euskarritan.



OHARRAK / AGENDA:

- HH2 eta 3: Guraso bilera orokorrak. [Informazioa](#). [Txostena \(HH2\)](#). [Txostena \(HH3\)](#).
- DBH1: Bullying tailerra. Urriak 27.
- 2019an jaiotako senideen aurrematkulazioa: [Galdetegia](#).
- Zerbitzuetak langileen lan-poltsa (zaintza, garraioa, garbiketa edo jangela): [Galdetegia](#).

